

## Hainbat gomendio

- Dei ezazu telefonoz bulegora joan aurretik. Modu horretara ziurtatuko duzu teknikaria ez dagoela kanpoan lanen bat egiten eta zuri behar bezala kasu egiteko moduan egongo dela.
- Agiriak behar bezala beteta aurkeztu itzazu (ikaslearen argazkia + ikaslearen sinadura + guraso baten sinadura).
- Jakinaraz ezazu edozein motatako eskari edota iradokizun kiroletako eskualde bulegoan.
- Jakinaraz itzazu ordezkatzan duzun erakundearen datuak, Kirol Zerbitzuko datu-basea eguneratu dezaten; (telefono honetara deituz: 943.458.357, edota helbide elektroniko honetara mezu bat bidaliz: [eroldak-censos@gipuzkoa.net](mailto:eroldak-censos@gipuzkoa.net))
- Egiatzatu itzazu pertsonaren nortasuna eta erakunde eskatzailearekin duen harremana.

## Kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak kexak eta iradokizunak aurkezteko sistema bat ezarri du, eskaintako zerbitzuei eta karta honetan hartutako konpromisoei buruz herritarrek duten iritzia helaraz dezaten.

Kexak eta iradokizunak Aldundiaren edozein erregistrotan aurkez daitezke, postaz edo Internet bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 30 laneguneko epea du erreklamazioei erantzuteko.

Zerbitzuak zure laguntzaz hobetu nahi ditugunez, eskertuko genizuke asebetetze mailari buruz aurkezten zaizkizun inkestak beteko bazenitu.

## Herritarren eskubideak

Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan dituzten eskubideak jasoak ditu apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretuak, 4. artikuluan (101 zk.ko GAO, 2005eko maiatzaren 31koa).

## Araudia

**12/2007 Foru Dekretua**, otsailaren 27koa, Gipuzkoako toki erakundeei kirol arloko diru laguntzak emateko araubidea onartzen duena.

**13/2007 Foru Dekretua**, otsailaren 27koa, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren kirol gaietako diru laguntzak emateko araubidea onartzen duena.

**3/2008 Foru Dekretua**, urtarrilaren 22koa, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren kirol gaietako diru laguntzak emateko araubidea onartzen zuen 2007ko otsailaren 27ko 13/2007 Foru Dekretua aldatzen duena. (Akats zuzenketa GAO 20 zk., 2008-01-29).

**322/2008 Foru Agindua**, ekainaren 17koa, 2008-2009 ikasturteko eskola kiroleko jardueren programa onartzen duena.

**63/2007 Foru Agindua**, urriaren 19koa, eskola ikasleentzako kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzen duena.

**69/2008 Foru Agindua**, saskibalo, eskubalo, futbol, areto futbol eta errugbiko hastapeneko unitateak arautzen dituena.

Gipuzkoako kirola arautzen duten xedapen guztiak honako web gunean aurki daitezke:  
[www.kirolzerbitzua.net](http://www.kirolzerbitzua.net)

## Konpromisoak betetzea

Zerbitzu karta honen konpromisoak zenbateraino betetzen diren ezagutzeko, kontsultatu emaitzak honako helbideetan:

[www.kirolzerbitzua.net](http://www.kirolzerbitzua.net)  
[www.gipuzkoa.net/DFG](http://www.gipuzkoa.net/DFG)

## Bulegoak eta ordutegia

*Dei ezazu telefonoz bulegora joan aurretik.*

### 01. Bidasoa / Oiartzun

#### Irun

Artaleku Udal Kiroldegia  
Karrika Nagusia, 30 – 20304 Irun  
Tel.: 943.630.351 Faxe: 943.630.351  
e-maila: [dep.irun@gipuzkoa.net](mailto:dep.irun@gipuzkoa.net)  
Asteazkena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00  
Ostirala: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

### 02. Donostialdea

#### Donostia

Kirol Etxea  
Anoeta, 5 – 20014 Donostia  
Tel.: 943.473.171 Faxe: 943.459.593  
e-maila: [ofcodpte@gipuzkoa.net](mailto:ofcodpte@gipuzkoa.net)  
Astelehena: 09:00-14:00 eta 16:00-19:00  
Osteguna: 09:00-14:00 eta 16:00-19:00

### 03. Urola / Kosta

#### Zarautz

Aritzatalde Udal Kiroldegia  
Araba kalea, 25 – 20800 Zarautz  
Tel.: 943.130.067 Faxe: 943.130.067  
e-maila: [dep.zarautz@gipuzkoa.net](mailto:dep.zarautz@gipuzkoa.net)  
Astelehena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00  
Osteguna: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

### 04. Deba-Behera / Deba-Garaia

#### Eibar

Ipurua Futbol Zelaia  
Ipurua kalea, 4 – 20600 Eibar  
Tel.: 943.207.071 Faxe: 943.207.071  
e-maila: [dep.eibar@gipuzkoa.net](mailto:dep.eibar@gipuzkoa.net)  
Asteazkena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00  
Ostirala: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

### 05. Goierri

#### Ordizia

Torrea  
Santa Maria, 4-1. ezk. – 20240 Ordizia  
Tel.: 943.889.545 Faxe: 943.889.545  
e-maila: [dep.ordizia@gipuzkoa.net](mailto:dep.ordizia@gipuzkoa.net)  
Astelehena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00  
Osteguna: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

### 06. Tolosaldea

#### Tolosa

Usabal Udal Kiroldegia  
Usabal, 25-A - 20400 Tolosa  
Tel.: 943.119.938 Faxe: 943.119.938  
e-maila: [dep.tolosa@gipuzkoa.net](mailto:dep.tolosa@gipuzkoa.net)  
Asteazkena: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00  
Ostirala: 09:00-13:00 eta 15:00-18:00

2009ko otsailean argitaratua.

## Zerbitzu karta



GIPUZKOA KIROLAK



## Kiroletako Eskualde Bulegoak



 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >>

## Sarrera

Zerbitzuen kartak direla medio, informazioa eman nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzuen ezaugarriei buruz, eta zerbitzu horiek kalitatekoak izateko konpromisoa ere hartu nahi dugu.

Gisa honetako ekimenekin eta zure laguntzarekin, lortu nahi dugu foru zerbitzu publikoak berauen erabiltzaile direnen premietara egokitzea eta areago hobetzen jarraitzea.

### Markel Olano Arrese

Gipuzkoako diputatu nagusia

### Iñaki Galdos Irazabal

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako foru diputatua

## Xedea

Kiroletako eskualde bulegoen zeregina da Gipuzkoako kirol sistemako eragileei hurbiltzea administrazio eta aholkularitza zerbitzuak.

## Zerbitzu karta honen ardura duen unitatea

Kirol Zuzendaritza Nagusiak prestatu du karta hau, Foru Administrazioaren Modernizazioko Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzarekin.

## Zein zerbitzu eskaintzen ditugu?

### KIROL ERAGILEEI ARRETA

#### Aurrez aurreko eta telefonoko arreta

Informazioa, aholkularitza eta kontsultak:

- Diru-laguntza lerroei buruzkoa.
- Eskola kiroleko programari buruzkoa.
- Toki, eskualde eta lurralde mailako kirol eragileei eta jarduerari buruzkoa.
- Kirol arloko beste zerbitzu batzuei buruzkoa.

#### Arreta telematikoa

www.kirolzerbitzua.net

- Diru laguntzen eskaerak.

www.gipuzkoa.net/deportes

- Eskola kiroleko partaideen eta taldeen izen-emateak.
- Eskola kiroleko baimenak.
- Eskola kiroleko joan-etorrietarako eta kirol materialerako diru laguntzak.

Bulegoetako ekipamendu informatikoak kirol eragileen eskura daude.

### ESKOLA KIROLEKO KUDEAKETAK

- Izen-emateak eta baimenak.
- Lizentziak eta fitxa osagarriak ematea.
- Istripu-agiriak bideratzea eta horien jarraipena egitea.
- Datuak gainbegiratzea eta egiaztatzea (izen-emateak, baimenak, joan-etorrietarako eta kirol materialerako diru laguntzak).
- Udalekin batera eskola kiroleko programa garatzea.

### DIRU LAGUNTZEN KUDEAKETA

- Diru laguntzen kanpaina noiz hasiko den jakinaraztea.
- Diru laguntza egokienak eskatzeko aholkularitza eskaintzea.
- Eskaera zuzen egiteko aholkularitza eskaintzea.
- Idatziz edota webaren bitartez egindako eskaerak jasotzea.
- Diru laguntzen egoeraren jarraipena egitea.

### BESTELAKO ZERBITZUAK

#### Sarrera erregistroa

Ondorengo helbideetara doazen agiriei sarrera ematea eta konpultsatzea:

- Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentura doazenei.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko beste departamentuetara doazenei.
- Aldundiarekin hitzarmena sinatu duten administrazioetara doazenei.

## Zein dira gure konpromisoak?

### KIROL ERAGILEEI ARRETA

Kirol eragileei arreta egokia eta pertsonalizatua ematea:

- Tratu atsegina eta errespetuzkoa eskainiz.
- Informazio argia, zehatza eta zabala emanez.
- Kirol eragileak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiliz.

Kiroletako eskualde bulegoetako zerbitzuei buruzko informazioa ematea klubei posta arrunta eta elektronikoa erabiliz.

Udal kirol zerbitzurik ez duten Tolosaldeko eta Goierriko udalerrietan kiroleko eskualde bulegoen presentzia areagotzea.

Komplexutasun teknikoagatik momentuan erantzun ezin izan diren kontsultei 3 lanegun baino lehen erantzutea, batez beste.

Bulegoetako langileen laguntza guztia eskaintzea Kirol Zerbitzuarekin erlazionatutako edozein kudeaketa telematikoa egiteko.

Kiroletako eskualde bulegoetako seinaleak hobetzea, erraz antzeman daitezen.

### ESKOLA KIROLEKO KUDEAKETAK

Harremanak hobetzea herri edota eskualdeetako batzarrekin eskola kiroleko urteko programaren berri emateko (berritasunak, gorabeherak...) eta, baita, eginiko eskari eta iradokizunak ezagutu eta Kirol Zerbitzuari jakinaraztea ere.

### DIRU LAGUNTZEN KUDEAKETA

Diru laguntzen deialdien berri ematea GAO n argitaratzen diren egun berdinean, posta elektronikoen bitartez.

Kiroletako diru laguntzak eskatzeko betebeharrak guztien informazio osoa ematea.

Kiroletako diru laguntzen eskaeren egoeraren inguruko informazioa hobetzea.

## Nola neurtzen ditugu?

Kirol eragileek betetzen dituzten gogobetetze-galdetegietan gutxienez 10etik 7 puntu lortuz, gai hauek direla-eta:

- Jasotako tratua.
- Informazioa eta hizkeraren argitasuna.
- Erabilitako hizkuntza ofiziala.

Egiaztatuz posta arruntez eta elektronikoz bidalketak egin direla.

Aztertuz, udal kirol zerbitzurik ez duten Tolosaldeko eta Goierriko zenbat udalerrri bisitatu diren.

Kontsultak erantzuteko behar izan den batez besteko denbora aztertuz.

Kirol eragileek betetzen dituzten gogobetetze-galdetegietan gutxienez 10etik 7 puntu lortuz, bulegoetako langileek kudeaketa telematikoa eskaintako laguntzari dagokionez.

Kirol eragileek betetzen dituzten gogobetetze-galdetegietan gutxienez 10etik 7 puntu lortuz, seinaleei dagokionez.

Kirol eragileek betetzen dituzten gogobetetze-galdetegietan gutxienez 10etik 8 puntu lortuz, herri edota eskualdeetako batzarrekin izandako harremanei dagokionez.

Egiaztatuz posta elektronikoen bitartez bidalketa egin dela.

Kirol eragileek betetzen dituzten gogobetetze-galdetegietan gutxienez 10etik 7 puntu lortuz, diru laguntzak eskatzeko betebeharraren informazioari dagokionez.

Kirol eragileek betetzen dituzten gogobetetze-galdetegietan gutxienez 10etik 7 puntu lortuz, diru laguntzen eskaeren egoerari dagokionez.